

**Ahal Dugu Euskadin euskara
normalizatzeko I. Plana
2019-2021**

AURKIBIDEA	Orria
1. Sarrera	3
2. Helburua	4
3. Diagnostikoa	5
3.1. Irizpideak	6
3.2. Emaitzak	7
3.3. Ondorioak	17
3.3.1. Zirkuluak	17
3.3.2. Erakundeak	20
4. Normalizazio Plana	24
4.1. Helburuak	24
4.1.1. Zirkuluak	24
4.1.2. Erakundeetako kargudunak eta langileak	24
4.2. Neurriak	25
4.2.1. Zirkuluak	25
4.2.2. Erakundeetako kargudunak eta langileak	31
4.3. Planaren Jarraipena	33
4.3.1. Epeak	33
4.3.2. Jarraipen Batzordea	34
4.3.3. Baliabideak	35

1.- Sarrera

Urte askotan zehar gaztelania izan da gure autonomia-erkidegoan politika egiteko ia hizkuntza bakarra. Jende askoren ustez euskara mendiko, herri txikietako, baserrietako eta, beraz, kultura-maila baxuetako jendearen hizkuntza zen eta etorkizun “hobeago” baten bila zebiltzan pertsonak, orokorrean, gaztelaniari ematen zioten garrantzia, etxean ikasitako euskara bazter utzita. Are gehiago, euren seme-alabek gaztelaniaz ikasi zezaten ahalegintzen ziren, hizkuntza hori ikasiz gero, etorkizun hobeagoa izateko aukerak biderkatuko zatzaizkielakoan.

Egoera horretaz aparte, ezin ahaztu erakunde politikoetan eta erabakiak hartzen ziren esparruetan euskara baztertuta zegoela, estatu osoan gaztelania hizkuntza bakarra izatea lortzeko politika bortitzak zeudelako.

Euskara dugu gure lurraldearen berezko hizkuntza, eta balioak, ideiak eta sentimenduak transmititzen ditu, bai kulturarekin zerikusia duten esparru guztietan, bai biztanleek elkarren artean eta inguratzen dituen munduarekin harremanak garatzeko baliatzen dituzten sentipen eta ikuspegi guztietan.

Hamarkadetan zehar euskarak diglosia-egoera bati aurre egin behar izan dio etengabe, eta gaur egun, euskararen erabilera eta ezagutza normalizatzeko bidean egin behar den lan guztiaren adierazle esanguratsua da oraindik, baita hizkuntza-eskubideen errespetuaren adierazlea ere.

Iritsi den une honetan euskal gizarteak ausardia eta irudimena eskatzen die instituzioei, hain zuzen ere euskararen erabilera sustatuko duten politika berriak diseina ditzaten eta horretarako behar diren bitarteko materialak denon eskura jar ditzaten.

Biztanleen hizkuntza-eskubideak bermatzea funtsezko konpromisoa da, baita euskaraz erlazionatzeko eta artatua izateko eskubidea bermatzea ere, eta zer esanik ez euskara ez

dakiten eta gure lurraldean bizi diren pertsonen hizkuntza ofizialetako bat guztiz doan ikasteko hizkuntza-eskubideari dagokionez.

Euskara etengabe balioetsi eta babestu behar dugu, biztanle guztiok partekatzen dugun ondare baliotsuenetako bat den heinean. Eta gure alderdiaren barruan egiten diren politika guztietan argi izan behar dugu premisa hori.

Pertsonen hizkuntza-eskubideen garrantzia aintzat hartuta, eta, zehazki, gure alderdian euskara sustatzeko premia kontuan hartuta, Hizkuntza Politikako idazkaritzan funtsezkoa iruditu zaigu alderdiaren baitan euskararen egoera zein den jakiteko diagnostiko bat lantzea, hain zuzen ere euskararen ezagutzaren eta erabileraren egiazko mapa bat izateko eta horren gainean hizkuntza-helburu egoki batzuk zehazteko. Horren bitartez, benetako hizkuntza-beharrak eta lehentasunak finkatu ahal izango ditugu, Ahal Dugu Euskadiren proiektu politikoan markatutako lerroei jarraiki.

2.- Helburua

Dokumentu hau helburu bikoitzarekin landu da: alde batetik, Ahal Dugu Euskadiren maila guztietan eta zirkuluak dauden udalerrietan euskarak zer nolako presentzia eta zer arazo dituen ezagutzeko, eta, bestetik, euskararen erabilera eta presentzia oro har alderdiaren esparru guztietan normalizatzeko.

Lehen helburua gauzatzeko, oso garrantzitsua izan da zirkuluen konpromisoa lortzea, azken batean gure alderdiaren oinarrian daudelako eta, horietan funtzionatzen duten neurriak lortzen badira, alderdia sustraietatik euskaldunduko delako. Zirkuluetan euskarak arnagunerik ez badu lortzen, ezinezkoa izango da beste maila batzuetan euskara modu naturalean jorratzea.

Bigarren helburuari dagokionez, ezinbestekoa da politikari buruz euskaraz hitz egiteko esparruak sortzea. Izan ere, kaletik inor alderdira hurbiltzen bada, nahi duen hizkuntzan komunikatzeko aukera izango duela jakin behar du. Euskaraz komunikatzeko eskubidea

bermatu eta defendatu behar dugu, beste edozein giza eskubide defendatzen dugun moduan, eta denok dakigu, esanak esan, ekintzek hitzek baino askoz gehiago adierazten dutela. Beraz, hor ere zirkuluen nahiz kargudunen konpromisoa funtsezkoa izango da hurrengo urteetan gure alderdia Euskadin errotutako alderdia dela frogatzeko.

3.- Diagnostikoa

Edozein plan prestatzeko, lehenik eta behin ondo jakin behar da egoera zein den, markatutako irizpideen gainean eraginkorrak izango diren neurriak prestatu ahal izateko. Gure alderdiaren kasuan, euskararen egoeraren diagnostikoa egiteko, bi esparru bereizi dira: alde batetik zirkuluak aztertu dira, eta beste aldetik, aginte- eta ordezkari-organak (kargudunak).

Datuak biltzeko hainbat pauso jarraitu dira. Lehenik eta behin, lurralde bakoitzeko koordinatzaileekin hitz egin genuen, zirkuluetako arduradunek diagnostiko bat egiteko asmoa genuela jakin zezaten. Are gehiago, Bizkaiko koordinakundearen bilerara hurbildu ginen, aurrez aurre, jarraituko genuen prozedura eta normalizazio-planaren helburu nagusiak azaltzeko. Oso harrera ona izan genuen eta jendeak, oro har, euskararen inguruan zerbait egin behar zela aldarrikatu zuen. Gipuzkoako koordinakundean ere hizkuntza-politikako zirkuluko kideetako batek prozeduraren eta helburuen berri eman zuen.

Hurrengo pausoa izan zen harremanetarako protokoloa jarraitu eta, bertan agertzen diren helbide elektronikoen bitartez, diagnostikorako inprimakia bidaltzea, zirkulu bakoitzeko arduradun batekin harremanetan jartzeko eskaera ere luzatuz. Tamalez oso zirkulu gutxik erantzun zuten eta beste bide batzuk bilatu behar izan ziren; hala nola, zuzenean zirkuluetako idazkari nagusiekin hitz egin zen eta bakoitzari bere zirkuluko hizkuntza-arduradun bat bilatzea eskatu zitzaion, bete beharreko inprimakia erantsiz. Hortik aurrera, banan-banan harremanetan jarraitu da, zirkulu guztietako datuak bildu ahal izateko.

Guztira 41 zirkulurekin jarri gara harremanetan –gainerako zirkuluek ez dute inolako jarduerarik– diagnostikoa egiteko, hain zuzen ere honako zirkulu hauekin: Gasteiz, Abanto-

Zierbena, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Durango, Elorrio, Erandio, Galdakao, Getxo, Leioa, Mungia, Muskiz, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sopela, Trapaga, Urduliz, Zornotza, Güeñes, Andoain, Arrasate, Bergara, Donostia, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Hernani, Irun, Lasarte-Oria, Pasaia, Tolosa, Villabona, Ordizia, Otxarkoaga, Zorroza, Ortuella, Zarautz, Hezkuntza-zirkulua, eta Gazte Moreak.

Zirkulu askotan euskara-arduradun zehatzik ez zegoen arren, ezinbestekoa ikusi da euskararen normalizazio-plana zirkuluan gauzatzeko ardura hartuko duen pertsona bat bilatzea, hau da, hizkuntza-arduradun bat bilatzea. Izan ere, normalizazio-planean zehazten diren neurrien artean –aurrerago azalduko da–, hizkuntza-arduradunen sare bat sortzeko erronka ezarri da.

Zirkuluetako hizkuntza-arduradunak zehaztu bezain laster, banan-banan eskatu zaie euren zirkuluko euskararen egoera ezagutzeko fitxa (1. eranskina) betetzea. Era berean, arduradun bakoitzaren euskara-maila zehazteko informazioa jaso da banatutako fitxaren bitartez.

Kargudunen euskara-maila eta, horrekin batera, agente- eta ordezkaritza-organoetan gure alderdiak euskarari egiten dizkion keinuak zer-nolakoak diren jakiteko, beste fitxa bat prestatu eta banatu da (2. eranskina). Zehazki, honako erakunde hauetan pasatu da fitxa: Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiak, Eusko Legebiltzarra eta Hiritar Kontseilu Autonomikoa. Udalen kasuan, nahiz eta azken lau urteetan gure alderdiko hainbat pertsona zinegotzi-jardunetan aritu diren, Gasteizko udaletxeaz aparte beste guztietan Podemosek/Ahal Duguk ez du ordezkaritarik izan eta beste marka edo izen batzuekin lan egin dute; eta, horrez gain, udaletxeetako legegintzaldia amaitzear dagoela kontuan hartuta, zinegotzi taldeen euskara-maila diagnostiko honetarako adierazgarritzat ez hartzea erabaki da.

3.1. Irizpideak

Diagnostikoa egiteko banatu den fitxan honako irizpide hauek ezarri dira euskararen erabilera nolakoa den zehazteko.

- Zirkuluetan:

- . **Ahozko barne komunikazioak:** zirkuluaren bilerak, tailerrak, lantaldeak, egoera informalak
- . **Ahozko kanpo komunikazioak:** komunikabideak (prentsa-aurrekoak, irratia...)
- . **Idatzizko barne komunikazioak:** aktak, e-mailak, komunikazioak
- . **Idatzizko kanpo komunikazioak:** kartelak, prentsa-oharrak, e-mailak, oharrak, internet (sare sozialak, webgunea)

- Erakundeetan (kargudunak eta langileak):

- . **Ahozko barne komunikazioak:** arloaren bilerak, tailerrak, egoera informalak
- . **Ahozko kanpo komunikazioak:** aurkezpenak, komunikabideak (prentsaurrekoak, irratia, telebista...)
- . **Idatzizko barne komunikazioak:** komunikazioak, e-mailak, aktak
- . **Idatzizko kanpo komunikazioak:** e-mailak, kartelak, sare sozialak

3.2. Emaitzak

Zirkuluak

Zirkuluen diagnostikorako fitxak jaso diren heinean, bildutako datuekin datu-taula bat osatu da honako irizpide hauei jarraiki (3. eranskina):

- Zirkulu bakoitzeko hizkuntza-arduradunari buruzko informazioa bildu da: harremanetarako datuak, euskarako hizkuntza-gaitasun tituluak, idazteko gaitasun-maila, mintzatzeko gaitasun-maila eta ulertzeko gaitasun-maila; betiere Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera neurtuta: A1, A2, B1, B2, C1 (C2 maila ez da neurtu, kasurik egongo balitz ere, normalizazio-plan honetarako esanguratsua ez delako).

- Zirkulu bakoitzeko batez besteko kide kopurua.
- Zirkuluan euskararen erabilera-ehunekoa zein den zehazten da, gaztelaniaren eta euskararen arteko proportzioa aintzat hartuta (biak batuta %100 eman behar dute), eta goian adierazitako lau irizpideetan multzokatuta.
- Beste atal bat erantsi da arduradunek egin nahi izan dituzten iradokizunak jasotzeko.

Zirkuluetako kide kopuruak eta euskararen erabilera-mailak

Herria / Zirkulua	Kide kopurua	Ahozko barne komunikazioak (%-etan)	Ahozko kanpo komunikazioak - Prentsa (%-etan)	Idatzizko barne komunikazioak (%-etan)	Idatzizko kanpo komunikazioak - Internet eta prentsa (%-etan)

Guztira inkestatutako 41 zirkuluetatik, 35 zirkuluk aurkitu dute militante euskaldun bat eta bete dute fitxa. Beste 6 zirkuluetan ez dago euskararen ardura har zezakeen militanterik edo ez dute euskararekiko interesik adierazi. Fitxa bete duten zirkuluen batez besteko emaitzak honako hauek izan dira:

- Ahozko barne komunikazioak: $\% 120 \text{ (batura)} / 35 \text{ (zirkuluak)} = \% 3,43$
- Ahozko kanpo komunikazioak: $\% 681 \text{ (batura)} / 35 \text{ (zirkuluak)} = \% 19,45$
- Idatzizko barne komunikazioak: $\% 796 \text{ (batura)} / 35 \text{ (zirkuluak)} = \% 22,74$
- Idatzizko kanpo komunikazioak: $\% 1.200 \text{ (batura)} / 35 \text{ (zirkuluak)} = \% 34,28$

Batez besteko zifra horiek oinarritzat hartuta, hiru multzo hauetan banatu dira zirkuluak:

a) Egoera onuragarria: irizpide bakoitzaren batezbestekoa hamar puntutan baino gehiago gainditzen dutenak.

- Ahozko barne komunikazioak: 3 zirkulu; $\% 8,57$
- Ahozko kanpo komunikazioak: 10 zirkulu; $\% 28,57$
- Idatzizko barne komunikazioak: 11 zirkulu; $\% 31,42$
- Idatzizko kanpo komunikazioak: 11 zirkulu; $\% 31,42$

b) Erdibideko egoera: irizpide bakoitzaren batezbestekora iristen diren eta zifra hori ehuneko hamar puntuko bitartean gainditzen dutenak.

- Ahozko barne komunikazioak: 10 zirkulu; % 28,57
- Ahozko kanpo komunikazioak: 7 zirkulu; % 20
- Idatzizko barne komunikazioak: 6 zirkulu; % 17,14
- Idatzizko kanpo komunikazioak: 14 zirkulu; % 40

c) Egoera makala: irizpide bakoitzaren batezbesteko zifraren azpitik dauden zirkuluak.

- Ahozko barne komunikazioak: 22 zirkulu; % 62,85
- Ahozko kanpo komunikazioak: 18 zirkulu; % 51,42
- Idatzizko barne komunikazioak: 18 zirkulu; % 51,42
- Idatzizko kanpo komunikazioak: 11 zirkulu; % 31,42

Euskararen diagnostikorako fitxen azken galderan, oharrak, adierazpenak eta ekarpenak egiteko tarte bat utzi da. Hona hemen arduradunek egin dituzten ekarpen eta adierazpen esanguratsu batzuk:

“Ahal Dugun dabilenetik, euskara galtzen ari dela sentitzen du.”

“Zirkuluan gutxi dira eta Carlos da euskaraz moldatzen den bakarra; lehen bazegoen beste norbait, baina kanpoan dago.”

“100 pertsonatik 20k ondo dakite hitz egiten eta idazten. Beste guztiek ulermen maila txiki bat soilik erakusten dute. Egoera soziolinguistiko hori adinaren eta formazioaren araberakoa da. Eta euskaldun gehienek, kargu publikoetan zein barnekoetan dihardutenez, ez dute parte hartzen zirkuluen bizitzan.”

“Euskararen ezagutza-maila urria da: batzuek ez dakite, eta beste batzuek maila baxua edo ertaina dute. Pare batek maila altua dute eta ez dute arazorik.”

“Argumentario potenteak, hau da, denbora luzez lantzen ditugun politiken eta eztabaiden argumentarioak euskaraz ere jartzea/itzultzea, batez ere gero bakoitzak bere argudioak prestatzeko lagungarria izan dadin.”

“Denbora gutxi hartutako konpromiso guztiak betetzeko eta bizitza pribatuarekin uztartzeko.”

Erakundeak (kargudunak eta langileak):

Instituzioetan lan egiten duten kargudunen eta teknikarien euskara-maila eta euskararen erabilera aztertzeko, Erakunde Ekintzako idazkaritzako arduradunarekin jarri ginen harremanetan, haren bitartez diagnostikorako fitxa legebiltzarrean eta Hiritar Kontseilu Autonomikoan dagokion pertsoneri bidaltzeko. Era berean, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundietako kargudunekin harremanetan jarri gara, haien lantaldeetan ere fitxa bete zezaten. Bildutako datuekin datu-taula bat (4. eranskina) osatu da honako irizpide hauei jarraiki:

- Kargudunaren edo teknikariaren izen-abizenak, euskarako hizkuntza-gaitasun tituluak, idazteko gaitasun-maila, mintzatzeko gaitasun-maila eta ulertzeko gaitasun-maila; betiere Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera neurtuta: A1, A2, B1, B2, C1 (C2 maila ez da neurtu, kasurik egongo balitz ere, normalizazio-plan honetarako esanguratsua ez delako).
- Kargudunen edo teknikarien lan-arloetan euskararen erabilera-ehunekoa, gaztelaniaren eta euskararen arteko proportzioa aintzat hartuta (biak batuta % 100 eman behar dute), eta goian adierazitako lau irizpideetan multzokatuta.
- Azken atal bat erantsi da kargudunek edo teknikariek egin nahi izan dituzten iradokizunak jasotzeko.

Arabako Foru Aldundia:

Arabako Batzar Nagusietako kide eta langileen euskara-erabilera

Kargua	Kide kopurua	Ahozko barne komunikazioak (%-etan)	Ahozko kanpo komunikazioak - Prentsa (%-etan)	Idatzizko barne komunikazioak (%-etan)	Idatzizko kanpo komunikazioak - Internet eta prentsa (%-etan)

Batzarkideak

- Ahozko barne komunikazioak: %
- Ahozko kanpo komunikazioak: %
- Idatzizko barne komunikazioak: %
- Idatzizko kanpo komunikazioak: %

Langileak

- Ahozko barne komunikazioak: %
- Ahozko kanpo komunikazioak: %
- Idatzizko barne komunikazioak: %
- Idatzizko kanpo komunikazioak: %

Bizkaiko Foru Aldundia:

Bizkaiko Batzar Nagusietako kide eta langileen euskara-erabilera

Kargua	Kide kopurua	Ahozko barne komunikazioak (%-etan)	Ahozko kanpo komunikazioak - Prentsa (%-etan)	Idatzizko barne komunikazioak (%-etan)	Idatzizko kanpo komunikazioak - Internet eta prentsa (%-etan)

Batzarkideak

- Ahozko barne komunikazioak: %
- Ahozko kanpo komunikazioak: %
- Idatzizko barne komunikazioak: %
- Idatzizko kanpo komunikazioak: %

Langileak

- Ahozko barne komunikazioak: %
- Ahozko kanpo komunikazioak: %
- Idatzizko barne komunikazioak: %
- Idatzizko kanpo komunikazioak: %

Gipuzkoako Foru Aldundia:

Gipuzkoako Batzar Nagusietako kide eta langileen euskara-erabilera

Kargua	Kide kopurua	Ahozko barne komunikazioak (%-etan)	Ahozko kanpo komunikazioak - Prentsa (%-etan)	Idatzizko barne komunikazioak (%-etan)	Idatzizko kanpo komunikazioak - Internet eta prentsa (%-etan)

Batzarkideak

- Ahozko barne komunikazioak: %
- Ahozko kanpo komunikazioak: %
- Idatzizko barne komunikazioak: %
- Idatzizko kanpo komunikazioak: %

Langileak

- Ahozko barne komunikazioak: %
- Ahozko kanpo komunikazioak: %
- Idatzizko barne komunikazioak: %
- Idatzizko kanpo komunikazioak: %

Eusko Legebiltzarra:

Eusko Legebiltzarreko kide eta langileen euskara-erabilera

Kargua	Kide kopurua	Ahozko barne komunikazioak (%-etan)	Ahozko kanpo komunikazioak - Prentsa (%-etan)	Idatzizko barne komunikazioak (%-etan)	Idatzizko kanpo komunikazioak - Internet eta prentsa (%-etan)

Legebiltzarkideak

- Ahozko barne komunikazioak: %
- Ahozko kanpo komunikazioak: %
- Idatzizko barne komunikazioak: %
- Idatzizko kanpo komunikazioak: %

Langileak

- Ahozko barne komunikazioak: %
- Ahozko kanpo komunikazioak: %
- Idatzizko barne komunikazioak: %
- Idatzizko kanpo komunikazioak: %

Hiritar Kontseilu Autonomikoa:

Hiritar Kontseilu Autonomikoko idazkari eta langileen euskara-erabilera

Kargua	Kide kopurua	Ahozko barne komunikazioak (%-etan)	Ahozko kanpo komunikazioak - Prentsa (%-etan)	Idatzizko barne komunikazioak (%-etan)	Idatzizko kanpo komunikazioak - Internet eta prentsa (%-etan)

*Euskalduna ez izan arren, kanpora zuzentzen dituen idazkiak itzulpen zerbitzutik pasatzen ditu orokorrean.

Idazkariak

- Ahozko barne komunikazioak: %
- Ahozko kanpo komunikazioak: %
- Idatzizko barne komunikazioak: %
- Idatzizko kanpo komunikazioak: %

Teknikariak

- Ahozko barne komunikazioak: %
- Ahozko kanpo komunikazioak: %
- Idatzizko barne komunikazioak: %
- Idatzizko kanpo komunikazioak: %

Euskararen diagnostikorako fitxen azken galderan, oharrak, adierazpenak eta ekarpenak egiteko tarte bat utzi da. Hona hemen kargudunek eta teknikariek egin dituzten ekarpen eta adierazpen esanguratsu batzuk:

“Kanpora zuzendutako komunikazioa eta barne komunikazioaren artean egoera oso desberdina da. Kanpora begira, bai karteletan, publikazioetan edo prentsari zuzentzen diren komunikazio ezberdinetan, euskara eta gaztelaniaren portzentajea oso antzekoa da. Agian piskat gehiago gaztelania erabiltzen da, baina gutxi gora behera erdi-erdi egiten da. Barne komunikazioa, aldiz den-dena gaztelaniaz egiten da. Elkarrizketa informalak badaude euskaraz, bai ahoz bai telegramen bidez, baina komunikazio ofiziala oso osorik gaztelaniaz egiten da. Are gehiago, aurkezpenak edo tailerrak euskaraz eginez gero, askotan ulertzen ez duen jendea kexatu eta samindu egiten da eta berehala gaztelaniara itzultzen gara. Praktikan, aurkezpenetako lehen hitzak egiten dira euskaraz “kupo” baten moduko bat betetzeko eta besterik ez.”

“Euskeraren erabilera oso ahula da Podemos Euskadin. Jende gutxi daki eta dakitenek ere ez dugu behar adina erabiltzen. Baina uste dut ez zaiola erakundean merezi duen garrantzia ematen eta Euskara altxor arkeologiko bat erabiltzen da bakarrik, folkloreaken parte bezala.”

“Ekitaldi politikoetan eta zirkuluetan euskararen presentzia (Bizkaian eta Araban, batez ere) oso mugatuta dago. Kontzientzia eta formakuntza falta dira. Batez ere, euskararekiko beste kontzientzia eta jarrera. Euskara gehiago erabili ahalko genuke idazkaritzaren bileretan, baina erdaldunen presentziak zailtzen du.”

3.3. ONDORIOAK

3.3.1. Zirkuluak

Zirkuluen egoera Irizpide bakoitzeko

Irizpidea	Egoera onuragarria (%-etan)	Erdibideko egoera (%-etan)	Egoera makala (%-etan)
Ahozko barne komunikazioak	8,57	28,57	62,85
Ahozko kanpo komunikazioak	28,57	20	51,42
Idatzizko barne komunikazioak	31,42	17,14	51,42
Idatzizko kanpo komunikazioak	28,57	40	31,42

Taulan oinarrituta atera daitezkeen ondorioak:

- Egoera makalean dauden zirkuluak nagusitzen dira lau irizpideetan.
- Ahozko barne komunikazioen arloa da nabarmen ahulezia handiena duena euskararen erabilerari dagokionez.
- Ahozko kanpo komunikazioei dagokionez, deigarria da egoera onuragarria duten zirkuluak erdibideko egoeran daudenak baino gehiago izatea.
- Idatzizko barne komunikazioen kasuan ere, egoera onuragarrian daudenak erdibideko egoeran daudenak baino gehiago dira, ia bikoitza.
- Idatzizko kanpo komunikazioei dagokionez, erdibideko egoeran dauden zirkuluak nagusitzen dira, eta egoera makalean daudenaren proportzioa nabarmen jaisten da.

Fitxen bidez bildutako datu zehatzetan oinarrituta, honako hauek izan daitezke taulako datuen arrazoiak:

- Militante euskaldunak daudela argi badago ere, euskara dakiten horiek oro har ez dute eguneroko bizitzan euskara erabiltzeko ohiturarik, eta horrez gain, militante askok euskararik ez dakitela aintzat hartzen badugu, oso zaila da soilik euskaldunak biltzen dituzten esparruak aurkitzea. Ondorioz, estres linguistikoa (elkarrizketa batean dauden solaskideen euskara-maila zein den jakin ezean, hizkuntza bat edo beste aukeratu behar izateak sortzen duen egoera deserosoa) ekiditeko eta partaide guztiek esaten den guztia ulertzen dutela eta hitz

egin dezaketela ziurtatzeko, gaztelaniara jotzen da zirkulu, tailer eta bilera guztietan, baita idazten diren mezuetan ere (sareetan, telegramen, aktak).

b) Nahiz eta militante euskaldunak egon, soilik euskaraz hitz egiteko eremurik ez da sortu zirkuluetan eta, ondorioz, euskararik ez dakiten militanteak dauden egoeretan, estres linguistikoa ekiditeko, gaztelaniara jotzen da. Fenomeno hori bera antzeman da euskal gizartean; izan ere, euskararen ezagutza-mailaren eta erabilera-mailaren artean oraindik arrakala handia dagoela ondorioztatu da euskararen sustapenean lan egiten duten esparru guztietan, eta erabilera sustatzeko neurri zehatz berriak behar direla ondorioztatu da.

c) Zirkuluetako euskara-arduradunen ahozko euskara-maila B2 eta C1 tartean mugitzen bada ere, idatzizko euskara-maila pixka bat baxuagoa da. Fenomeno hori hizkuntza guztietan gertatzen da, gizakiak oro har idazteko baino askoz gaitasun handiagoa baitugu ulertzeko eta hitz egiteko. Eta, horrez gain, gizarte osora edo aurkezpen irekietara egiten ditugun ahozko aurkezpenetan gure alderdiaren irudia kontuan hartzen dugu, eta ahal den heinean (militanteek euren denbora ahal duten moduan banatzen dute) euskarari presentzia ematen saiatzen gara.

d) Inskribatuei zuzendutako buletinak eta mezuak idatzizko barne komunikazioen esparruan bildu dira, hain zuzen ere guztiak gaudelako modu batean edo bestean alderdiaren barruan. Gauza bitxia baina era berean ulergarria gertatzen da idatzizko barne komunikazioetan: aktak ehuneko ehunean gaztelaniaz egiten ditugu, eta sareen, kanalen eta e-mailen bitartez militante eta inskribatuei zuzentzen dizkiegun mezuetan, euskara txertatzeko ahalegina egiten dugu. Horren arrazoia, ziur asko, gauzak euskara itzultzeaz arduratzen diren pertsonen indarrak ez agortzea liteke.

e) Kanpora begira egiten ditugun adierazpen gehienak idatziz egiten ditugu, bai kartelen eta sareen bitartez, bai prentsa-oharren eta argitalpen zehatzen bitartez, eta badakigu gure alderdian defendatzen ditugun neurrien jarraitzaile eta defendatzaile euskaldunak daudela. Hortaz, euskara maite duten eta gure alderdia euskalduna ere badela ikusi nahi duten pertsona horiek kontuan hartzen ditugu idatzizko mezuak helarazi nahi ditugunean. Gainera,

horrelako testuak normalean denbora gehiagorekin lantzen dira eta gaztelaniaz nahiz euskaraz prestatzeko denbora izan ohi da.

3.3.2. Erakundeak

Ondorioak:

- a) Kargudunen artean euskara dakiten pertsonen proportzioa % 50aren inguruan kokatzen da Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Hiritar Kontseilu Autonomikoan; nabarmen gora egiten du (% 87,5era) Eusko Legebiltzarrean; eta % 25ean kokatzen da Arabako Batzar Nagusietan.
- b) Ahozko barne komunikazioei dagokionez, Araban ez da euskara batere erabiltzen, eta beste lau erakundeetan ere oso gutxi erabiltzen dute.
- c) Ahozko kanpo komunikazioetan, Gipuzkoa da besteen aldean nabarmentzen dena (% 40). Bizkaian ere badu presentzia euskarak (% 30). Eusko Legebiltzarrean eta Hiritar Kontseilu Autonomikoan euskararen erabilera publikoa oso ahula da (% 20ren azpitik bi kasuetan). Eta, Araban ez dute euskararik erabiltzen.
- d) Idatzizko barne komunikazioei dagokionez, Araban ez dute euskararik erabiltzen; Bizkaian beste erakundeetan baino nabarmen gehiago erabiltzen dute (% 35); Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Hiritar Kontseilu Autonomikoan, nahiko parekoa da, batez ere euskara dakiten kideen proportzioa aintzat hartzen badugu; eta Eusko Legebiltzarrean, erabilera-maila proportzionalki baxua delako.
- e) Idatzizko kanpo komunikazioen kasuan, Arabako Batzar Nagusiak kenduta, beste lau erakundeetan ahalegina nabari da, Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusietan batez ere. Era berean, Eusko Legebiltzarrean eta Hiritar Kontseilu Autonomikoan euskararen aldeko ahalegin handiagoak egiten dituztela ikusten da.

4. NORMALIZAZIO PLANA

Ahal Dugu Euskadiren barruko maila guztietan euskararen egoera zein den aztertu ondoren, egoera hori hobetzeko eta euskarak alderdiaren barruan hazteko tokia izan dezan

bermatzeko, euskararen normalizazio-plana garatuko dugu, alderdiak bere gain hartu beharko dituen helburuak eta horiek betetzeko neurriak zehaztuta.

4.1. HELBURUAK

4.1.1. Zirkuluak

Aztertutako irizpideak aintzat hartuta, ezartzen diren neurrien bitartez euskararen erabilera zirkuluetan ehuneko hauetara ahalik eta gehien hurbiltzea izango da plan honen helburua:

- Ahozko barne komunikazioak: % 20 euskaraz
- Ahozko kanpo komunikazioak: % 30 euskaraz
- Idatzizko barne komunikazioak: % 20 euskaraz
- Idatzizko kanpo komunikazioak: % 50 euskaraz

4.1.2. Erakundeetako kargudunak eta langileak

Aztertutako irizpideak aintzat hartuta, ezartzen diren neurrien bitartez euskararen erabilera erakundeetan eta Hiritar Kontseilu Autonomikoan ehuneko hauetara ahalik eta gehien hurbiltzea izango da plan honen helburua:

- Euskaraz komunika daitezkeen (B2 maila) kideen kopurua: % 100
- Euskaraz komunika daitezkeen (B2 maila) langileen kopurua: % 100
- Ahozko barne komunikazioak: % 25 euskaraz
- Ahozko kanpo komunikazioak: % 50 euskaraz
- Idatzizko barne komunikazioak: % 25 euskaraz
- Idatzizko kanpo komunikazioak: % 50 euskaraz

4.2. NEURRIAK

4.2.1. Zirkuluak

Egoera onuragarrian dauden zirkuluak

. Ahozko barne komunikazioak:

- Zirkuluen bileretan hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egingo dira (gaztelaniaz errepikatu gabe).
- Tailerretan, hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egingo dira, eta ahal den kasu guztietan, tailerra euskaraz egiteko aukera eskainiko da.
- Lantaldeetan lantzen den terminologia euskaraz ere landuko da (euskarazko ezagutza teknikoa ahalbidetzeko).
- Egoera informaletan, solaskide guztiek euskara dakitenean, euskaraz hitz egiteko ahalegina egingo da.
- Politikari buruz euskaraz eztabaidatzeko zirkulu bat egingo da bi hilean behin gutxienez. Horretarako, pil-pilean dauden gaien inguruko lerro batzuk pasatuko dira zirkuluetako euskara-arduradunen bitartez.

. Ahozko kanpo komunikazioak:

- Prentsaurrekoetan beti zainduko da euskararen presentzia, baina espreski gaztelaniaz esango dena hitzez hitz itzuli gabe. Hau da, hizkuntza bakoitzak bere diskurtsoa izango du, nahiz eta oinarrian gauza bera esan.
- Jendaurrean egiten diren mitinetan eta jardunaldietan, hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egingo dira (gaztelaniaz errepikatu gabe), eta ahal den kasuetan (adibidez: aldez aurretik prestatutako erakusketa bat), esango denaren laburpen bat prestatuko da euskaraz paperan nahi duenak eskura izan dezan.

. Idatzizko barne komunikazioak:

- Osoko bileren eta batzarren aktak (hau da, erabakiak jasotzen dituzten aktak) osorik itzuli behar ez izateko, euskarazko laburpen bat egingo da.
- Militanteei zuzendutako posta elektronikoetan, ematen den informazioa laburra den heinean, bi hizkuntzetan emango da, eta informazio luzea eman behar denean, hasierako eta amaierako agurrak euskara hutsean egingo dira.

- Telegram edo whatsapp bidez egiten diren komunikazioetan, solaskide guztiek euskara dakitenean, euskara erabiltzeko ahalegina egingo da.

. Idatzizko kanpo komunikazioak:

- Karteletan informazio asko ematen bada, kartel batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz egingo dira.
- Karteletan informazio gutxi ematen bada (adibidez: manifestazio edo erakusketa baten deialdia), gako hitz batzuk euskaraz emango dira eta beste batzuk gaztelaniaz, dena kartel berean (adibidez: data eta lekua euskaraz, eta hizlariaren datuak eta jardunaldiaren izenburua gaztelaniaz), bi hizkuntzen arteko presentzia-proportzio egoki bat zainduz betiere.
- Prentsa-oharrak bi hizkuntzetan emango dira, eta itzultzeko astirik ez badago, gutxienez laburpen bat bidaliko da euskaraz.
- Webgunean gako informazioa bi hizkuntzetan emango da osorik; bigarren mailako informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz emango da, bietan egin behar izan gabe.
- Sare sozialetan (Facebook, Instagram eta Twitter) ahal den heinean euskararen % 25eko presentzia zainduko da.

Erdibideko egoeran dauden zirkuluak

. Ahozko barne komunikazioak:

- Zirkuluen bileretan hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egingo dira (gaztelaniaz errepikatu gabe).
- Tailerretan, hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egingo dira, eta ahal den kasu guztietan, tailerra euskaraz egiteko aukera eskainiko da.
- Egoera informaletan, solaskide guztiek euskara dakitenean, euskaraz hitz egiteko ahalegina egingo da.
- Politikari buruz euskaraz eztabaidatzeko zirkulu bat egingo da bi hilean behin gutxienez. Horretarako, pil-pilean dauden gaien inguruko lerro batzuk pasatuko dira zirkuluetako euskara-arduradunen bitartez.

. Ahozko kanpo komunikazioak:

- Prentsaurrekoetan beti zainduko da euskararen presentzia, baina espreski gaztelaniaz esango dena hitzez hitz itzuli gabe. Hau da, hizkuntza bakoitzak bere diskurtsoa izango du, nahiz eta oinarrian gauza bera esan.
- Jendaurrean egiten diren mitinetan eta jardunaldietan, hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egingo dira (gaztelaniaz errepikatu gabe), eta ahal den kasuetan (adibidez: aldez aurretik prestatutako erakusketa bat), esango denaren laburpen bat prestatuko da euskaraz paperan, nahi duenak eskura izan dezan.

. Idatzizko barne komunikazioak:

- Osoko bileren eta batzarren aktak (hau da, erabakiak jasotzen dituzten aktak) osorik itzuli behar ez izateko, euskarazko laburpen bat egingo da.
- Militanteei zuzendutako posta elektronikoetan, ematen den informazioa laburra den heinean, bi hizkuntzetan emango da, eta informazio luzea eman behar denean, hasierako eta amaierako agurrak euskara hutsean egingo dira.
- Telegram edo whatsapp bidez egiten diren komunikazioetan, solaskide guztiek euskara dakitenean, euskara erabiltzeko ahalegina egingo da.

. Idatzizko kanpo komunikazioak:

- Karteletan informazio asko ematen bada, kartel batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz egingo dira.
- Karteletan informazio gutxi ematen bada (adibidez: manifestazio edo erakusketa baten deialdia), gako hitz batzuk euskaraz emango dira eta beste batzuk gaztelaniaz, dena kartel berean (adibidez: data eta lekua euskaraz, eta hizlariaren datuak eta jardunaldiaren izenburua gaztelaniaz), bi hizkuntzen arteko presentzia-proporzio egoki bat zainduz betiere.
- Prentsa-oharrak bi hizkuntzetan emango dira, eta itzultzeko astirik ez badago, gutxienez laburpen bat bidaliko da euskaraz.

- Webgunean gako informazioa bi hizkuntzetan emango da osorik; bigarren mailako informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz emango da, bietan egin behar izan gabe.
- Sare sozialetan (Facebook, Instagram eta Twitter) ahal den heinean euskararen % 25eko presentzia zainduko da.

Egoera makalean dauden zirkuluak

. Ahozko barne komunikazioak:

- Zirkuluen bileretan hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egingo dira (gaztelaniaz errepikatu gabe).
- Tailerretan, hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egingo dira, eta ahal den kasu guztietan, tailerra euskaraz egiteko aukera eskainiko da.
- Politikari buruz euskaraz eztabaidatzeko zirkulu bat egingo da bi hilean behin gutxienez. Horretarako, pil-pilean dauden gaien inguruko lerro batzuk pasatuko dira zirkuluetako euskara-arduradunen bitartez.

. Ahozko kanpo komunikazioak:

- Prentsaurrekoetan beti zainduko da euskararen presentzia, baina espreski gaztelaniaz esango dena hitzez hitz itzuli gabe. Hau da, hizkuntza bakoitzak bere diskurtsoa izango du, nahiz eta oinarrian gauza bera esan.
- Jendaurrean egiten diren mitinetan eta jardunaldietan, hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egingo dira (gaztelaniaz errepikatu gabe), eta ahal den kasuetan (adibidez: alde zuzenetik prestatutako erakusketa bat), esango denaren laburpen bat prestatuko da euskaraz paperan, nahi duenak eskura izan dezan (batez ere beste zirkuluetako jendea etorriko dela espero denean).

. Idatzizko barne komunikazioak:

- Militanteei zuzendutako posta elektronikoetan, ematen den informazioa laburra den heinean, bi hizkuntzetan emango da, eta informazio luzea eman behar denean, hasierako eta amaierako agurrak euskara hutsean egingo dira.

- Telegram edo whatsapp bidez egiten diren komunikazioetan, solaskide guztiek euskara dakitenean, euskara erabiltzeko ahalegina egingo da.

. Idatzizko kanpo komunikazioak:

- Karteletan informazio asko ematen bada, kartel batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz egingo dira.
- Karteletan informazio gutxi ematen bada (adibidez: manifestazio edo erakusketa baten deialdia), gako hitz batzuk euskaraz emango dira eta beste batzuk gaztelaniaz, dena kartel berean (adibidez: data eta lekua euskaraz, eta hizlariaren datuak eta jardunaldiaren izenburua gaztelaniaz), bi hizkuntzen arteko presentzia-proportzio egoki bat zainduz betiere.
- Prentsa-oharrak bi hizkuntzetan emango dira, eta itzultzeko astirik ez badago, gutxienez laburpen bat bidaliko da euskaraz.
- Webgunean informazio guztiaren laburpen bat eman beharko da euskaraz edozein argitalpenen hasieran.
- Sare sozialetan (Facebook, Instagram eta Twitter) ahal den heinean euskararen % 25eko presentzia zainduko da.

4.2.2. Erakundeetako kargudunak eta langileak

. Euskaraz komunika daitezkeen kideen kopurua:

Gure alderdian erantzukizun politikoak dituzten pertsonen euskara-maila hobetzeko eta euskara normaltasunez eta zuzen erabiltzen dutela ziurtatzeko, bi neurri nagusi proposatzen dira:

- Euskaltegi batean izena ematea edo lantokian bertan euskara-eskolak antolatzea.
- Euskaraz hitz egiteko ohitura areagotzeko, B1 maila gaindituta duten kargudun guztiak urtean gutxienez hiru astez barnetegi batean sartzea gomendatzen da.

. Euskaraz komunika daitezkeen langileen kopurua:

Gure alderdian arduradun politikoei laguntza eskaintzen dieten langileen euskara-maila hobetzeko eta euskara normaltasunez eta zuzen erabiltzen dutela ziurtatzeko, hiru neurri nagusi proposatzen dira:

- Kontratazioak egitean, aurkezten diren hautagaien euskara-maila kontuan hartzea eta euskara dakitenak lehenestea.
- C1 mailara iristen ez direnek Euskaltegi batean izena ematea, edo lantokian bertan euskara-eskolak antolatzea.
- Euskaraz hitz egiteko ohitura areagotzeko, B1 maila gaindituta duten langile guztiek gutxienez hiru astez barnetegi batean sartzea gomendatzen da.

. Ahozko barne komunikazioak:

- Arloko bileretan hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egingo dira (gaztelaniaz errepikatu gabe).
- Lantaldeetan eta tailerretan, hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egingo dira, eta, ahal den kasu guztietan, tailerren zati bat euskara hutsean egingo da.
- Lantaldeetan lantzen den terminologia euskaraz ere landuko da (euskarazko ezagutza tekniko ahalbidetzeko).
- Egoera informaletan, solaskide guztiek euskara dakitenean, euskaraz hitz egiteko ahalegina egingo da.

. Ahozko kanpo komunikazioak:

- Aurkezpenetan eta adierazpenetan (osoko bilerak, mahaiak, batzordeak) beti zainduko da euskararen presentzia (% 50), baina espreski gaztelaniaz esango dena hitzez hitz itzuli gabe. Hau da, hizkuntza bakoitzak bere diskurtsoa izango du, nahiz eta oinarrian gauza bera esan.
- Prentsaurrekoetan beti zainduko da euskararen presentzia, eta hizkuntza bakoitzak bere diskurtsoa izango du, nahiz eta oinarrian gauza bera esan.
- Jendaurrean egiten diren mitinetan eta jardunaldietan, hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egingo dira (gaztelaniaz errepikatu gabe), eta ahal den kasuetan (adibidez: aldez aurretik prestatutako adierazpen, aldarrikapen edo erakusketa bat),

esango denaren laburpen bat prestatuko da euskaraz paperan nahi duenak eskura izan dezan.

. Idatzizko barne komunikazioak:

- Erakundeetako kide eta langileen arteko komunikazioetan (Telegram, Whatsapp, e-mailak...), solaskide guztiek euskara dakitenean, euskara erabiltzeko ahalegina egingo da.
- Alderdiko gainerako arduradunei zuzenduta egiten diren komunikazioetan (adibidez: *chat* baten erabilera-arauak) informazio orokorra euskaraz nahiz gaztelaniaz emango da, bi hizkuntzen presentzia bermatzeko
- Militanteei zuzendutako posta elektronikoetan, ematen den informazioa laburra den heinean, bi hizkuntzetan emango da, eta informazio luzea eman behar denean, hasierako eta amaierako agurrak euskara hutsean egingo dira.

. Idatzizko kanpo komunikazioak:

- Karteletan informazio asko ematen bada, kartel batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz egingo dira.
- Karteletan informazio gutxi ematen bada (adibidez: manifestazio edo erakusketa baten deialdia), gako hitz batzuk euskaraz emango dira eta beste batzuk gaztelaniaz, dena kartel berean (adibidez: data eta lekua euskaraz, eta hizlariaren datuak eta jardunaldiaren izenburua gaztelaniaz), bi hizkuntzen arteko presentzia-proportzio egoki bat zainduz betiere.
- Prentsa-oharrak bi hizkuntzetan emango dira, eta itzultzeko astirik ez badago, gutxienez laburpen bat bidaliko da euskaraz.
- Sare sozialetan (Facebook, Instagram eta Twitter) ahal den heinean euskararen % 25eko presentzia zainduko da.

4.3. PLANAREN JARRAIPENA

4.3.1. Epeak

Planak indarrean jarraituko du egungo Hiritar Kontseilu Autonomikoa indarrean dagoen epean. Nolanahi ere, bi urteko indarraldia ezarri da plan honetarako, eta adierazitako neurriak betetzen direla eta horien eraginkortasuna zehazteko, bi neurketa egingo dira planaren indarraldian zehar.

2020ko urtarriletik martxora bitarte, hau da, plan honetan datuak bildu diren unetik urtebete igaro ondoren, fitxa berak pasatuko neurrien betetze-maila eta eraginkortasuna neurtzeko. Era berean, indarrean jartzen denetik une horretara bitarte jasotzen diren iritziak, arazoak, oharrak eta iruzkinak kontuan hartuko dira, planaren bigarren erdian doikuntzak egiteko.

Handik urtebetetera, hau da, 2021eko urtarriletik martxora bitarte, fitxak pasatuko dira eta planaren ebaluazio orokorra egingo da. Zehazki, euskararen erabilerak izan duen bilakaera aztertuko da eta Ahal Dugu Euskadin euskararen erabilera normalizatzeko 2. plana prestatuko da.

Beti ere, alderdiaren egunerokotasunean sor daitezkeen oztopoek planaren epeetan eragina izan dezaketela aintzat hartuta, behar izanez gero, plan honek indarrean jarraituko du hurrengo plana egiten den arte.

4.3.2. Jarraipen batzordea

Planaren jarraipena egiteko eta neurrien eraginkortasuna balioesteko, Jarraipen Batzorde bat osatuko da. Batzordearen helburu zehatzak izango dira:

- a) Plan honetako diagnostikoa eta neurriak ezagutzea eta ulertzea, eta plana hobetzeko irizten dituzten aldaketak proposatzea;
- b) Planaren indarraldian zehar, euskara-arduradunek adierazten dituzten zailtasunei eta iruzkinei erantzutea;
- c) 2020ko eta 2021eko neurketetan jasotzen diren datuen ebaluazioa egitea;
- d) Hizkuntza Politikaren arloko euskara-teknikariaren lana osatzea.

Jarraipen batzordea osatuko dute:

- 1) Hiritar Kontseilu Autonomikoko Hizkuntza-politikaren arloko idazkaria
- 2) Hizkuntza-politikaren arloko euskara-teknikaria
- 3) Ahal Dugu Euskadiko langile guztiek izendatutako euskara-arduradun bat
- 4) Zirkuluetako euskara-arduradunen artean izendatutako ordezkari bat
- 5) Ahal Dugu Euskadiko idazkari nagusia edo hark izendatutako ordezko bat

Jarraipen batzordeak honako bilera hauek izango ditu planaren indarraldian zehar:

- 1) 2019ko urrian edo azaroan, planaren hasierako ezarpenean ikusi diren zailtasunak aztertzeko
- 2) 2020ko martxoan edo apirilean, bildutako datuen ebaluazioa egiteko
- 3) 2020ko urrian edo azaroan, planaren bigarren fasean hauteman diren zailtasunak aztertzeko.
- 4) 2021eko martxoan edo apirilean, planaren ebaluazio orokorra egiteko eta, ahal izanez gero, bigarren planaren ildo nagusiak zehazteko.

4.3.3. Baliabideak

Euskara-arduradunen sarea

Plana txertatzeaz arduratuko diren militanteen talde bat sortuko da. Bi bide ahalbidetuko dira taldearekin:

- a) Alde batetik, Telegrameko *chat* bat sortuko da, euskararen erabilera sortzen diren zalantzak argitzeko, eta terminologiarekin lotuta sortzen diren arazoak konpontzeko.
- b) Beste aldetik, Telegrameko kanal bat sortuko da, euskararen erabilera errazteko sortzen diren materialak banatzeko: txantiloak (plantilla), itzulpen- eta zuzenketa-zerbitzurako protokoloa, euskararekin lotutako albisteak, euskaraz egin behar diren zirkuluetan erabiltzeko informazioa (argumentarioa), Jarraipen Batzordearen aktak, alderdiak euskaraz argitaratzen dituen prentsa-oharrak, eta planaren indarraldian zehar sortzen diren arazoei erantzuteko denon intereserako izan daitezkeen baliabideak.

Itzulpen- eta zuzenketa-zerbitzua

Plan honen helburu nagusietako bat da zirkuluetan eta erakundeetan euskara dakiten pertsonak euskararen erabilera ere ahalduntzea, azken batean bakoitzak bere kaxa euskara erabili dezan, itzulpen-zerbitzurik baliatu behar izanik gabe.

Horregatik, beste ezeren aurretik, zuzenketa-zerbitzua lehenetsiko da eta itzulpen-zerbitzua soilik behar-beharrezkoa denean erabiltzen dela ziurtatuko da. Hala ere, testu luzeak argitaratu behar direnean eta dagokion arduradunak informazio bera (adibidez: buletin edo gutun bat) euskaraz txukun idazteko gaitasuna ez duenean, protokoloan zehaztutako irizpideei jarraituko zaie itzulpena eskatzeko.

Nolanahi ere, euskara-teknikariak itzulpenaren eskatzaileak gaitasun nahikoa baduela eta itzulpenaren orde zuzenketa eskatzearekin nahikoa duela irizten badio, itzulpena egiteari uko egiteko ahalmena izango du, horretarako arrazoiak idazki bidez adierazita.

Eranskinak

1. Eranskina: zirkuluei bidalitako diagnostiko-fitxa
2. Eranskina: erakundeetako kargudunei eta langileei bidalitako diagnostiko-fitxa
3. Eranskina: zirkuluen euskara-arduradunen euskara-maila eta euskararen erabilera
4. Eranskina: erakundeetako kargudunen eta langileen euskara-maila eta euskararen erabilera
5. Eranskina: Hedabideetan euskaraz komunikatzeko irizpideak
6. Eranskina: itzulpen- eta zuzenketa-zerbitzua erabiltzeko protokoloa
7. Lagungarriak: ahozko hasierako eta amaierako agurrak; e-mailez deialdiak egiteko txantiloak; zirkuluan parte hartzera hurbiltzen diren pertsonen izena emateko orria.